

ARRANTZA. Eztabaida eragin du goi bilerak herrialdeen artean



I. OTXOA
Bolanta sareak 2002an debekatuko direla ziurtatzeko eskatu diote arrantzaleek Europako Batasunari.

Esteban Olaizola pozik agertu da, ICAATen goi bileraren inguruan

Hurrengo bilkura Murtzian antolatuko da, eta orduan zehaztuko dira kuotak

Joxerra Senar | **DONOSTIA**

Atzo amaitu zen Bruselan ICAAT Atlantikoko Atunaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundearen goi bilera, eta lehen itxura batean, Esteban Olaizola Gipuzkoako Kofradietako Federazioaren buruak balantze «positiboa» egin zuen goi bileraren inguruan.

«Halako bilkurak motelak dira, baina sortu den eztabaida interes handikoa izan da», azaldu zuen Olaizolak, Bruselatik iritsi berri. Hiru egun iraun duen goi bileran atunaren arrantzari buruzko makina bat kontu izan dituzte eztabaidagai. Akordio-rik egonez gero, ICAAT erakundeak atunaren harrapaketak irizpideak ezarriko ditu.

Irizpideok arrantzaleen etorkizunerako bere biziko garran-

tzia dute. Irizpide horietako bat arrantza teknikak izan daitezke, hain zuzen, arrantzaleek betidanik egin duten aldarrikapeneta-ko bat.

Europako Batasunaren baitan, 1998an ezarritako araudia- ren arabera, datorren urtean debekatuko dira bolantak. Hala ere, arrantzaleek zalantzak dituzte Europako zenbait herrialde- deek debeku epe hori atzeratu nahi ote duten.

Hala, Itsas Geroa elkarteak herenegun bilkuran parte hartu ahal izan zuen eta zalantzok mahai gainean jarri zituen. Argi eta garbi galdetu arren, Europa- ko Batzordeko ordezkariak, ez zuen alde bateko zein besteko erantzunik eman.

Dena den, Olaizola pozik agertu da Itsas Geroaren parte hartzeaz, eta, iritzi guztien ara-

bera, hitzaldi «garbia eta ondo aurkeztua» izan zen Xabier Ezeizabarrena elkarteko aboka- tuak eginikoa.

Kuotak izateko eskubidea eztabaida gai

egunean zehar Garapen bidean dauden herrialdeek atunaren harrapaketa kuotak izateko eskubideaz aritu ziren eztabai- dan atzo, egunean zehar. Hain- bat herrialdek, ez dute atuna harrapatzeko ohiturarik, baina espezie hori haien uretan bilat- tzen denez, kuota edukitzeko eskubidea aldarrikatu dute. Japo- nia da herrialde horietako bat. Izan ere, neurriaren alde azalduta, dagokien kuota hori baimen gisa saltzeko bidea bai- tute.

Haatik, beste herrialde bat- zuek iritzi diote herrialdeek arrantza flota behar dutela izan, eta kuotak ezin diren salerosi.

Hurrengo goi bilera Murtzian izango da, eta orduan ezarriko dira 2002ko kuotak.

LAN ISTRIPIUA

Bi langile hil dira beharrean, Huescan eta Nafarroan, eta beste bat zauritu Hernanin

Erredakzioa | **IRUÑEA**

Herenegun eta atzo behargin bi hil ziren Huescan eta Nafarroako Argedas herrian. Gai- nera, beste bat larri zauritu- rik dago Donostiako Ospita- lean, Hernanin istripua izan osten.

COPISA lantegiarentzat lan egiten zuen Nafarroako Buñuel herriko E.O.G. 57 ur- teko gizona herenegun hil zen. Ezbeharra Huescako Salillas-Petrusa errepidea moldatzen ari zenean gerta- tu zen. Gizonari hondea-ma- kina bat gainera etorri zi- tzaion, eta berehala hil zen.

Atzo, berriz, Juan Ramon

E.M., 54 urteko donostiarrak hil zen Argedas herrian (Na- farroa). Foruzaingoaren ara- bera, heriotza Congelados de Navarra S.A. lantegian gertatu zen. Langilea teila- tuan ari zen beharrean eta 15 metroko altueratik amildu zen. Hildakoa Ramon Vizcai- no SL Taldea enpresarentza- ko ari zen lanean.

Halaber, beste lan istripu bat gertatu zen atzo Hernani- ko Laztaola industrialdean. Hori dela eta, J.C.N.M. 42 ur- teko donostiarrak larri dago Donostiako Ospitalean, 350 kiloko langa metalikoak erori zitzaizkiolako gainera. Buru- ko traumatismoa du.

ENPRESAK

Txinako merkatuari buruzko jardunaldia antolatu du SPRI erakundeak Kursalean

J. Senar | **IRUÑEA**

SPRI erakundeak Txinako merkatuak Euskal Herriko enpresentzat dituen aukera, zailtasun eta arriskuen ingu- ruko jardunaldia antolatu zuen atzo Donostiako Kursal- jauregian.

Txina, azken bi hamarka- detan, batez beste %10 hazi da urtean, eta Munduko Bankuaren arabera, 2002an munduko lehen ekonomia izatera iritsiko da. Fernando Olaizola SPRIko Asiako bu- ruaren arabera Europako Batasuna baino zazpi aldiz bizkorrago aldatzen ari da.

Hala ere, MQM nazioarte- ko aholkularitza enpresako Alejandro Molinsek zehaztu zuen Txinako kultura, ikus- molde eta legedia erabat desberdinak direla eta berta- ra egokitu beharra dagoela.

Adibidez, atzerriko enpre- sa gehienek Txinako bazkide batekin elkartu ohi dira he- rrialdean barneratzeko. Baz- kide horrekin kontratua sina- tzeke negoziazioak, batzaz beste, bi urte iraun ohi dute. Hala, Diego Labarquilla Sa- vera Groupeko lehendaka- riarentzat hiru baldintza dira beharrezkoak: «Pazientzia, pazientzia eta pazientzia».

Maiatzaren 25-26

Ostirala
Egun guzian
Ekoizpenen FERIA
Larunbata

B A I O N A


Espanako atea

Arratsaldeko
betarik goiti
Sagarnoa dohainik
eta afaria

Sagarno Eguna

Laguntzailea
Egunkaria

Antolatzaileak:
Gure Irratia, Ikastolak, Gau Eskola, Idoki



Phillips Internet Consulting
Designing the marketing for the new millenium
Web agentzia / Web gune hedapena eta kontseiluak
www.phillips-internet.com <http://www.phillips-internet.com/>
Tel : 00 33 559 010 290